

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak

ASTEKO LABURPENA

2017ko martxoaren 13tik martxoaren 17rako astea

INGURU MAKROA:


- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

ASTE HONETAN MERKATUETAN

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: ZEW SENTIMENDU EKONOMIKOA



Datuaren analisia

Alemaniako ZEW indizearen aurreikuspenen osagaiak otsaileko 10,4tik martxoko 12,8ra igo zen, baina, hala ere, espero zen 13tik behera geratu zen. Gaur egungo egoera neurtzen duen osagaia ere 77,3ra igo zen martxoan, aurreko 76,4tik, baina hau ere 78an kokatu zuten aurreikuspenen azpitik.


Adierazlearen azalpena

Alemaniako Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko egoeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen "sentimendu ekonomiko" islatzeko balio du. Hilero argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten datuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hileetako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie adituei.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: FEDen BILERA



Datuaren analisisa

FEDek asteazkenean iragarri zuen tasak 25 op igotzeko erabakia, % 0,75-% 1 tarteraino, merkatuak espero zuen moduan. Erabakia aldeko 9 botorekin eta kontrako bakar batekin hartu zen. FEDek, gainera, 2017an tasen beste bi igoera gehiago egiteko asmoari eutsi zion, eta beste hiru 2018an. Testuinguru horretan, 2017rako % 2,1eko hazkundearen aurreikuspenean ez zen aldaketarik egin. Bere horretan mantendu ziren, halaber, inflazioaren aurreikuspenak (% 1,9 2017rako eta % 2 2018 eta 2019rako) eta langabeziarenak (% 4,5 hurrengo hiru urtetan).


Adierazlearen azalpena

Federal Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-politikako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren egonkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko erakunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren bitartez, enplegu erabatekoa, prezioen eraginkortasuna (inflazioa eta deflazioaren prebentzioa barne) eta epe luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen helburuak.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: SENTIMENDUA MICHIGANEKO UNIBERTSITATEA



Datuaren analisia

Michiganeko Unibertsitatearen kontsumitzaileen konfiantzaren atariko datua 97,6ra igo zen martxoan, aurreko 96,3tik, eta esperotako 97aren gainera. Gaur egungo baldintzen adierazleak igoera handia izan du, 111,5etik 114,5era, 111 besterik espero ez zenean; aurreikuspenen adierazlea, aldiz, 86,5etik 86,7ra igo da, 85,5 espero zenean. Gaur egungo baldintzen adierazlea 2000ko azarotik bere mailarik altuenean dagoela nabarmendu behar da.

Adierazlearen azalpena

Kontsumitzaileen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzaileen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero. Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako inkestan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzaileen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoren uzkurdua eragingo du.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
03/20	Alemania	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	% 0.4
03/20	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	--
03/21	Espainia	Balantza komertziala	--
03/21	Erresuma Batua	Hileko KPIa	% 0.5
03/21	Erresuma Batua	Txikizkako prezioen indizea	267.5
03/21	Estatu Batuak	Kontu korrontearen balantza	-\$128.2b
03/22	Japonia	Balantza komertziala	¥807.2b
03/22	Japonia	Hileko industria-indizea	% 0.0
03/22	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
03/22	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.58m
03/22	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	-% 1.9
03/22	Estatu Batuak	AEB Petrolio gordinaren inbentarioak DOE	--
03/23	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	10.0
03/23	Frantzia	Enpresen konfiantza	104
03/23	Frantzia	Fabrikazioaren konfiantza	107
03/23	Eurogunea	EBZren hileko buletina	0
03/23	Erresuma Batua	MoM txik. salmentak autoen erregairik gabe	% 0.3
03/23	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	240k
03/23	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	% 1.8
03/23	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	14
03/23	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-5.9
03/23	Eurogunea	EBZren LTRO guztira	--
03/24	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
03/24	Frantzia	Urte arteko BPGd	% 1.2
03/24	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	52.4
03/24	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	56.1
03/24	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	55.9
03/24	Espainia	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	--
03/24	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	56.5
03/24	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	54.5
03/24	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	56.0
03/24	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	55.3
03/24	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	55.3
03/24	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	55.8
03/24	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 1.0
03/24	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	54.8

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK:

Aste positiboa burtsentzat Atlantikoaren bi aldeetan, batez ere Europan. Astearen hasieran, parlamentu britainiarrak bidea garbi utzi zion Theresa Mayri Brexita aktibatu ahal izateko, baina Holandako hauteskundeak izan ziren, ondoren, astearen erdialdean, arreta osoa bereganatu zutenak. Ruttek, gaur egungo lehen ministroak, lortu zuen garaipena, eta indize nagusiek harrera ona egin zioten albiste horri. Aste honetan, Eurostoxx indizeak +% 0,94 egin zuen aurrera, baina periferian ikusi ziren igoerarik handienak, eta Ibxek, esatera baterako, +% 2,39 igo zen. AEBetan, FEDen bilerak bereganatu zuen merkatuen arreta, eta espero zen tasen igoera iragarri zuen, % 0,75-% 1era artekoa. Horrez gain, 2017an bi igoera gehigarri eta 2018an beste hiru egiteko asmoa berretsi zuen, baina kontu hau aurretik deskontatuta zegoen. Maila orokorrean ere aste positiboa izan zen merkatu gorakorretan. Japoniako burtsa izan zen salbuespen bakarra, pixka bat atzera egin baitzuen, bere txanponak dolarraren aldean daukan indarrarengatik.

INDICES	PRECIO	%Variación Semanal	% Var 2017
MSCI WORLD (Local)	1.439,58	0,40	5,52
IBEX 35	10.245,80	2,39	9,56
DJ EURO STOXX 50	3.448,41	0,94	4,80
DJ STOXX 50	3.141,99	1,31	4,37
FTSE	7.424,96	1,12	3,95
S&P 500	2.378,25	0,24	6,23
Dow Jones	20.914,62	0,06	5,83
NASDAQ	5.901,00	0,67	9,62
NIKKEI 225	19.521,59	-0,42	2,13
MSCI EMERGENTES (Lo)	51.580,97	2,88	8,25
MEXBOL	48.593,44	3,17	6,46
BOVESPA	64.209,94	-0,72	6,61
SHANGHAI	3.389,95	0,77	4,32
Rusia Rts Moscú	1.111,89	5,30	-3,51

ERRENTA FINKOA:

Asteon, jaitsiera arinak eman dira errentagarritasunetan. AEBetan mugimenduak pixka bat handiagoak izan ziren, errentagarritasunek nabarmen egin baitzuten behera Fed-en bileraren ondoren. Hala ere, pixka bat berreskuratu ziren ondoren, eta 10 urterako bonuak 7 op egin zuen atzera, % 2,50eraino, astearen amaieran. Europan, 10 urterako bonu alemaniarraren errentagarritasunak ere 5 op egin zuen atzera, % 0,44raino; bere homologo espainiarraren errentagarritasunak, aldiz, ia ez zuen aldaketarik izan eta % 1,88an amaitu zuen astea. Kreditua pixka bat hobetu zen eta bere marjinak estutu zituen.

Tipos Gobiernos	Nivel	Variación Semanal	Var 2017
ALEMANIA 2 AÑOS	-0,77	0,06	-0,01
ESPAÑA 2 AÑOS	-0,14	-0,07	0,14
EE.UU 2 AÑOS	1,31	-0,04	0,13
ALEMANIA 10 AÑOS	0,44	-0,05	0,23
ESPAÑA 10 AÑOS	1,88	-0,01	0,50
EE.UU. 10 AÑOS	2,50	-0,07	0,06
ALEMANIA 30 AÑOS	1,18	-0,08	0,23
ESPAÑA 30 AÑOS	3,12	-0,07	0,50
EE.UU. 30 AÑOS	3,11	-0,06	0,04
Spread de credito (pb)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/22	69,90	-1,89	-2,15
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/22	275,85	-7,52	-12,85

DIBISAK/LEHENGAIK:

Dibisetan, dolarraren balio galtzea izan zen mugimendurik adierazgarriena; FEDen bileraren ondoren, % 0,72 egin zuen atzera, 1,0746\$/€ mailaraino, euroaren aurrean, astearen amaieran. Liberaren indartzea ere nabarmendu behar da, parlamentu britainiarraren erabakiaren ondoren, astea 0,867£/€ mailan itxi zuena. Lehengaietan, AEBetako inbentario-datu onak eta adostutako murrizketak bete direla iragartzen zuen LPEEren hileko txostenak petrolio gordinaren kotizazioa igotzen lagundu zuten, eta +% 1,11 egin zuen aurrera, 51,22\$/upela mailaraino. Urreak ere balioa irabazi zuen, +% 2,04, 1.229\$/ontza mailaraino.

Dívisas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Dólar / Euro	1,07	0,72	1,89
Yen / Euro	121,05	-1,22	-1,62
Libra/ Euro	0,87	-1,11	1,46

Materia Primas	Nivel	%Variación Semanal	% Var 2017
Petroleo (Brendt)	51,22	1,11	-7,56
Oro	1.229,29	2,04	6,68

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.